EUROPAR KOMUNITATEEN BATZORDEA
ESPAINIAKO ORDEZKARITZA



# Euskal Herria Europar Batasunean

2.en edizioa




**EUROPAR KOMUNITATEEN BATZORDEA**

Espainiako Ordezkaritza
Paseo de la Castellana, 46
E - 28046 MADRIL
Telefonoa: (91) 431 57 11

Bilduma honetako informazioak Europar Batzordearen Zuzendaritza Orokor eta Zerbitzu desberdinek emandako materialetik prestatu dira. Ekonomia eta Haziendako Ministerioaren Plangintzako Zuzendaritza Nagusiaren eta Autonomi Elkarteetako Zerbitzu desberdinen laguntza ere jaso da.

Idazten José Antonio Nieto Solís eta Alfonso Utrilla jaunek, Madrileko Unibertsitate Konplutenseko irakasle titularrek esku hartu dute.
Eskerrak ematen dizkiogu Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Idazkaritzari dokumentu honetan argitara eman ditugun argazkiak adeitasunez eskuratu dizkigulako.
1995eko irailean bukaturiko eskuizkribua.

*Itzulpena:* Comunicación Multilingüe.
*Diseinua:* OPE
*Zuzendaritza Teknikoa eta barnealdeen birdiseinua:* PUBLÍPOLIS, S.L.
*Imprimaketa:* Impreso en España por GRAFOS, S.A.
Arte sobre papel. Zona Franca. Sector C. Calle D, n.° 36.
08040 Barcelona.
*Legezko Gordailua:* B-43361-1995


Birsortze baimendua, merkataritza-helburuekin izan ezik, iturburua aipatuz gero.
*Argazkiak:* © Eusko Jaurlaritza (birsortzea debekaturik)



# AURKIBIDEA


Hitzaurrea 2

Oinarrizko datuak 4

Euskal Herria: Ezaugarri sozioekonomikoak 5

Europar Batasunak Euskal Herriari emandako laguntzak (1989-1993) 11

Euskal Herriko garapen-estrategia berriak (1994-1999) 16

Helbide baliagarriak 26

Glosategia 31

Oinarrizko bibliografia 38



**Ehun politiko, ekonomiko eta soziala**

# HITZAURREA

*EUROPAR Agiri Bakarraren 23. atalak ekonomi eta gizarte-kohesioaren printzipioa ezarri zuen. Bere xehetasun zehatzenetan, europar integrazioa ezinbesteko baldintza da barne-merkatu handia gauzatzeko. Baina europar giza eta gizarte-egitasmoa handia taxutzeak bere geografia zabaleko gune guztien bizitasuna sendartu eta elkartasun-sentimendu bat baieztatzea eskatzen du, horrela, Salvador de Madariagaren parafrasia eginez, europarra den ezer arrotz izan ez dakigun. «Erregio-politika», «FEDER», «Europar Gizarte Fondoa», «Laguntzarako Komunitate Markoa», «Kohesio Fondoak» edo «Europan zeharreko Sareak» bezalako esamoldeek galdu egiten dute, kontsiderazio horiekin, beren beren tonu lehorra eta izaera ilusionatzailea hartzen dute. Nola hobetu Batasuneko hiritar guztien bizi-maila? Nola porrokatu oraindik bereizten gaituzten hesiak? Nola eutsi, eraginkortasun eta dinamismoa batere galdu gabe, bere desberdintasunean Europa batu baten iraupena markatzen duten tokiko usario eta altxorrei, sistema eta araudien gainetik?*

***B**igarren urte jarraikian, Europar Batzordearen Espainiako Ordezkaritzak argitaratzen dituen argitalpen-sailak fokapen anitz bat ireki nahi du Egitura Fondo eta Komunitate Ekimen erregionalen laguntzarekin buruturiko jardueren sorta estaltzeko. Oraingo bertsioa, handitu eta berrikusia Batasuneko gainerako herrialdeetan iaz agerturiko antzeko argitalpenen ildotik doa.*

***E**spainiar komunitateei buruzko bildumak eskema bakarraren arabera egituratutako hogei faszikuluz osatua da. Kasu bakoitzean, lehenik oinarrizko berezitasun sozioekonomikoen aipamena egiten da, ondoren Laguntzarako Komunitate Markoaren (1989-1993) lehen jarduerei ikusialdi bat ematen zaie eta azkenean 1994-95 bosturtekorako onarturiko garapen erregionaleko egitarauetan dauden proposamenen azterketa batekin ematen zaio bukaera. Hori guztia informazioa argitzen edo zabaltzen duten datuez osatzen da.*

***A**hal den neurrian, Erregio bakoitzean, laguntza komunitarioarekin, burutu edo hasi diren edo burutzeko zorian dauden ekitaldien adibideez zurkaizten da testua. Halere, adierazi beharra dago beti ez dela erraza gertatzen egitasmo bakoitzean komunitate-fondoez baliatu den partea zedarritzea. Garapen-egitarauek laguntza orokorreko mekanismoak dituzte eta horiek bereziki betearaztea erdiko eta autonomietako administrazioei dagokie. Ez horretan eskuhartzaile diren jarduleen aniztasunak, ezta*

*fondoen zenbateko oparoak —horren sorburua, neurri handi batean, espainiar zergaduna bera da— ez digu eragotzi behar garapen erregionalaren funtsezko errealitate soziopolitikoa ikustea: komunitate-politika erregionalean esku hartzean Autonomiak jardueretan razionalizazioa eskatzen duten, ahalbide endogenoak biltzen eta eskura dauden baliabideak bermez hoberentzen dituen europar plan zabal baten tarteko dira.*

*Aipaturiko datuek inondik ere ez dute agertzen, azterturiko ia jarduera guztietan, Europar Batasunak Autonomi Komunitateekiko erakusten duen elkartasunaren benetako tamaina europar erregio garatuenetan dauden ongizate-mailetaraino horiek jasotzeko. Egitura Fondoak beste neurri bat gehiago dira finantza-tresna posibleen sorta zabalean. Bateratze-pozesuan arrakastaren erantzukizuna hiritarrei dagokie benetan, izan ere erregio bakoitzean, ezin gehiagoraino errentagarritu beharko baitituzte hasitako jardueren ondorioak eta Europar Espazio Komun batek eskaintzen dituen onura orokorrak, zeren eta bertako elkartrukeak gero eta erosoagoak eta aurrerabidea gero eta finkoagoa baitira.*

*Gure bilduma hau izan bedi, gainera, agente ekonomiko eta sozialei eskaini zaien informazio orokorrera egiten dugun ekarpena, batasunaren presidentetza Espainiak bigarrenez hartzen duen abagune honetan. Europan sartu ginenetik hamar urtera, dagoeneko nabaria da Espainiar Erregioetako paisaia eraldatu duten eskuhartze komunitarioen sorta bikaina. Erregio horiek, arartekogabetasun fisikoz mamitzen dituzte europar instituzioen arkitektura berria gobernatzen duten subsidiariotasun, gardentasun eta hiritarrarengana hurbiltzearen printzipioak. Erregioen aurrerapenak Batasun Europarra, zailtasunak gaindituz, aurrera joango dela uste izatera bultzatzen gaitu, izan ere XXI. mendearen atarian bere zabalkuntza eta sendokuntza bermatu beharko baititu.*

**Gonzalo Velasco**

Europar Batzordearen
Espainiako Ordezkaritzaren Zuzendaria



# OINARRIZKO DATUAK

| 1991 urtea | EUR15 | ESPAINIA | EUSKAL HERRIA |
|---|---|---|---|
| Azalera % tan (1992) | 100 | 15,6 | 0,2 |
| Biztanleria % tan (1992) | 100 | 10,6 | 0,6 |
| BPGep* % tan (1992) | 100 | 8,2 | 0,5 |
| BPG biztanleko ep´* % tan (1992) | 100 | 77 | 90 |
| Demografi dentsitatea (Biztanleak/km²) | 114 | 77 | 293 |
| Demografi bilakaera (% 1981-1991) | 0,3** | 0,3 | –0,1 |
| 25 urtez beherako biztanleria % tan | 33,3** | 36,2 | 34,3 |
| 65 urtez gorako biztanleria % tan | 14,5** | 13,5 | 12,0 |
| Jaiotze-tasa % tan | 1,1** | 1,0 | 0,8 |

* ep: erosmen-parekotasunak (ikus glosategia).
** EUR12.
ITURRIA: EUROSTAT. Regiones, Anuario Estadístico (1994) eta Régions, Statistiques en Bref (1995).

| 1991 urtea | EUR12 | ESPAINIA | EUSKAL HERRIA |
|---|---|---|---|
| % nekazaritzako enplegua guztizko enpleguarekiko | 6,4 | 10,9 | 2,9 |
| % industriako enplegua guztizko enpleguarekiko | 33,3 | 33,0 | 42,0 |
| % zerbitzuetako enplegua guztizko enpleguarekiko | 60,3 | 56,1 | 55,1 |

ITURRIA: EUROSTAT. Regiones, Anuario Estadístico (1994).

| 1993 urtea | EUR12 | ESPAINIA | EUSKAL HERRIA |
|---|---|---|---|
| Jarduera-tasa* | 55,1 | 47,2 | 48,2 |
| Jarduera-tasa gizonak | 67,8 | 63,8 | 64,0 |
| Jarduera-tasa emakumeak | 43,4 | 31,9 | 33,2 |
| Menpekotasum-maila** | 1,2 | 1,6 | 1,4 |
| Langabezi tasa | 10,4 | 21,3 | 22,3 |
| Langabezi tasa gizonak | 9,2 | 17,7 | 17,2 |
| Langabezi tasa emakumeak | 12,2 | 28,0 | 31,8 |
| Langabezi tasa < 25 urte | 19,1 | 37,1 | 45,8 |

* Biztanleria aktiboa eta lanerako adinean dagoen guztizko biztanleriaren arteko erlazioa (1991).
** Biztanleria inaktiboa eta biztanleria aktiboaren arteko erlzioa (1991).
ITURRIA: EUROSTAT. Regiones, Anuario Estadístico (1994) eta Régions, Statistiques en Bref (1995).



# EUSKAL HERRIA: EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK

## 1.1. Oinarrizko zertzeladak

Euskal Herria kultur eta hizkuntz tradizio zehaztuenetakoak dituen europar erregioetako bat da. Autonomi Elkarte honen industriakuntza-prozesuak eta ehun sozial eta finantzarioa taxutzeak, baita iberiar penintsularen berezko mugetako batetik hurbil kokaturik egoteak, ezaugarri bereziz hornitu du.

***Euskal Herriak Europar Batasunaren % 0,2 hartzen du eta Espainiaren hedaduraren % 1,4. Bere biztanleria Hamabosten Europaren % 0,6 da eta espainiar biztanleriaren % 5,4.***

Bere biztanleriak ozta-ozta gainditzen 2,1 milioi biztaleko kopurua, Europar Batasunaren guztizkotik % 0,6 adierazten duena. Hedadura 7.260 $km^2$ ingurukoa da, hau da, Hamabosten Europako lurraldearen % 0,2. Bere demografi dentsitatea (293 biztanle $km^2$ko) europar batezbestekoa baino nabarmenki garaiagoa da (114) eta laukoiztu egiten du espiniar batezbestekoa (77). Halere, biztanleriaren banaketa ez da erabakarra, zeren eta Bizkaiko probintziak, Bilbo hirigunearen ondorioz neurri handi batean, gainditu egiten baititu 538 biztanleak km2ko, Gipuzkoa 350ra hurbiltzen eta Araba km2ko 100 biztanle izatera iristen ez den bitartean.

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

1

| 1994 urtea | ESPAINIA | EUSKAL HERRIA | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|---|---|
| Azalera km$^2$ | 504.750 | 7.261 | 3.047 | 1.997 | 2.217 |
| Biztanleria | 39.061.367 | 2.109.117 | 273.090 | 679.578 | 1.156.449 |
| Biztanleria % tan | 100 | 5,39 | 0,70 | 1,74 | 2,96 |
| BPG % tan | 100 | 5,90 | 0,88 | 1,82 | 3,16 |
| Nekazaritzaren eskuhartzea BPG-EAN | 5,04 | 2,75 | 3,89 | 2,41 | 2,49 |
| Industriaren eskuhartzea BPG-EAN | 21,67 | 33,00 | 36,18 | 33,23 | 30,48 |
| Eraikuntzaren eskuhartzea BPG-EAN | 7,91 | 6,86 | 6,20 | 6,26 | 7,61 |
| Zerbitzuen eskuhartzea BPG-EAN | 65,38 | 57,39 | 53,73 | 58,10 | 59,42 |

Datu probintzialak 1993an Balio Gehitu Gordinarekiko %ari dagozkio.
ITURRIA: FIES Fundazioa eta Bilbo Bizkaia Bankua.

Bai jaiokortasun-tasak, eta bai Euskal Herriaren hazkuntza demografikoa txikiagoak izan dira azken hamarkadan Espainia eta Europako erregio gehienetakoekin alderatuta. Bilakaera hori batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian nabarmendu da. Arabak, aitzitik, hazkuntza garrantzitsua izan du bere biztanle-kopuruan azken urteotan zehar. Piramide demografikoak Europan orohar baino gutxiago zahartua ageri du, nahiz eta Espainiaren gainerakoan baino gazte gutxiago duen.

Euskal Herriak espainiar BPGari egiten dion ekarpena % 5,9 ingurukoa da, eta horrek Europar Batasuneko BPGaren % 0,5 esan nahi du gutxi gora-behera. % 57,4 zerbitzu-sektoretik dator, % 39,9 industria eta eraikuntzatik, eta % 2,7 nekazaritzatik. Enpleguari dagokionez ehuneko horiek ondorengoak dira: % 55 zerbitzu-sektorean daude, % 42 industrian eta % 3 nekazaritzan.

***Euskal ekonomia BPG komunitarioaren % 0,5 da eta espainiar BPGaren % 5,9. Biztanleko bere BPG europar batezbestekoaren % 90ean dago eta maila erlatiboaren % 109an espainiar ekonomia osoarekiko.***

Garapen erlatiboaren mailak ere, BPGetik biztanleko erosmen-parekotasunetan neurturik, konparazio bikoitza eskaintzen du: europar batezbestekoa baino % 10 apalagoa da eta espainiar batezbestekoa baino % 9,4 garaiagoa. Zehatzago esateko, 90 indizea lortzen du, Europar Batasunean 100koa den batezbestekorako eta 109 balioa gainditzen du 100nen baliokidea den tasa baterako Espainian.

Nahiz eta Europarekiko bateratzeak aurrerabide positiboa egin duen azken hamarkadan, BPGaren hazkuntza per capita txikiagoa izan da

espaniar erregioetan, oro har. Hala eta guztiz ere, hazkuntza ekonomikoko tasak berreskuratu egin dira azken urteetan eta famili errentari dagokionez hobekuntza garrantzitsua eragin dute Euskal Herrian.

Lan-merkatuaren egoera dela eta, Autonomi Elkarte horri dagozkion adierazleek europar ekonomiak orohar duena baino egoera okerragoa islatzen dute eta industri krisiak erasandako hirigune handietan arazo berezi batzuk daudela gogorarazten du. Jarduera-tasak eta okupazio-mailak espainiar batezbestekoa baino handixeagoak dira, langabezi adierazleak oso maila antzekoetan daudelarik, gazte eta emakumeen kolektiboetan izan ezik, zeren eta horietan langabeziak kopuru handiak ageri baititu.

***Biztanleriaren % 34,3k 25 urte baino gutxiago ditu, aldiz, % 12k gainditzen ditu 65 urteak. Ehuneko horiek beroriek % 33,3 eta % 14,5 dira Europar Batasunean, hurrenez hurren.***

Zalantzarik gabe, espainiar Estatuaren antolakuntzaren ezaugarria den deserdirakuntza administratibozko prozesuak eta Eusko Jaurlaritzak duen autonomia-mailak erraztu egin du Euskal Herriaren garapena, izan ere erabakigarriak baitira alderdi askotan biztanleriaren ongizaterako. Europar Batasunak, subsidiariotasun printzipioarekiko eta europar erregioen barne-kohesiozko helburuekiko fideltasunean, Euskal Herriaren alde egindako ahaleginak bultzatzeko dauden mekanismoak zabaldu eta hobetzen ari da.

| 1994 urtea | ESPAINIA | EUSKAL HERRIA | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|---|---|
| BPG biztaleko | 100 | 109,40 | 126,1 | 104,5 | 106,6 |
| Famili errenta erabilgarria biztanleko | 100 | 107,81 | 122,2 | 105,5 | 104,0 |
| Konbergentzia erlatiboa 1985az geroztik BPG-EAN biztanleko | 0* | –4,24 | –9,9 | –13,3 | +0,7 |
| Konbergentzia erlatiboa 1985 az geroztik famili errenta erabilgarrian biztanleko | 0** | +5,96 | +14,3 | –0,5 | +6,0 |

Datu probintzialak 1993ri dagozkio.

* +8,90 Europar Batasunarekiko.

** +8,92 Europar Batasunarekiko.

ITURRIA: FIES Fundazioa eta Bilbo Bizcaia Bankua.

Photographs removed due to copyright restrictions.

*Bilboren ikusmira panoramikoa.*

## 1.2. Erregioen garapenerako oinarriak

Euskal Herriko biztanleen hazkuntza ekonomikoa eta bizi-mailaren hobekuntza errazteko diseinaturiko estrategietan aldekoenak dituen

| 1993 urtea | ESPAINIA | EUSKAL HERRIA | %GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Harmen handiko bideak km-tan* | 7.404 | 375 | 5,07 |
| Turismoak | 13.440.694 | 662.532 | 4,93 |
| Etxebizitza 1000 biztanleko** | 435 | 367 | 84 |
| Telefono linea ezarriak | 15.944.149 | 884.474 | 5,55 |
| Mediku kolegiatuak | 159.291 | 9.061 | 5,69 |
| Ospitale-oheak** | 164.451 | 9.994 | 6,08 |
| Gizarte segurantzako pentsioak (milak) | 6.605,6 | 362,0 | 5,48 |
| Batezbesteko urte gastua etxeko pezetatan** | 2.527.105 | 2.848.523 | 113 |

* Autopistak, autobideak eta galtzada biko errepide-sarea.
** 1991.
ITURRIA: INE.

Photographs removed due to copyright restrictions.

faktoreak aipatzen dira, baita Komunitate Autonomoaren egoera sozioekonomikoak planteatzen dituen mugapen nagusienak ere.

*Euskal Herriko nekazaritzak biztanleria aktiboaren % 2,9ri ematen dio enplegua; aldiz, Europar Batasunean zifra horrek % 6,4ko batezbesteko maila hartzen du.*

Aldekoenak diren faktoreen artean hauek aipa daitezke:

1) Burutzen ari den garraio eta komunikazioetarako oinegituren hobekuntza eta egoera geografikotik eta Euskal Herriaren baldintza naturaletatik sorturiko abantailak.

2) Egitura ekoizle bat izatea tradizio eta garapen zabalekoa eta enpresa-ehun sendotu eta ekoizpen-jarduerei laguntzen dieten zerbitzuez behar bezala hornitua.

3) Merkatu aski aurreratua eskura izateko erraztasuna, modernizazioa erraztuko duten eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna gehituko duten inbertsio berrien presentzia erakargarri bihurtzeko.

4) Beren biztanleen heziketa-maila eta teknologi oinarri garrantzizko bat izatea, baita erregioaren garapenean inplikaturiko agintarien

jarrera ere biztanleriaren bizi-mailaren hobekuntzan eragina duten alderdi desberdinetan jarduteko.

Euskal Herriaren garapenerako hain aldekoak ez dire faktoreen artean hauek aipa daitezke:

1) Ekipamendu eta oinegitura jakin batzuetan hornidura urria izatea, antzeko ezaugarriak dituzten Europako beste erregio batzuen aldean.

2) Ingurune naturala babesteko zailtasunak, batez ere hirigune eta industrigunetan, izan ere oraindik orain ekin baitzaio ingurugiro-inpaktua behar bezala kontrolatzeari.

***Ekimen komunitario desberdinek Euskal Herriko biztanleen bizi-maila Europa Batasunean dauden garapen-maila handiagoko erregioetan dagoenera hurbiltzeko laguntzak osatu dituzte.***

3) Industri krisia, bere ondorioak biztanleriaren eta euskal ekoizpen-egituraren parte handi batera hedatzen dituena, baita industrialki beheraka doazen erregioek nozitzen dituzten arazoei Europa-mailan soluziobideak aurkitzeko dauden zailtasunak ere.

4) Langabezi tasa garaiek planteatzen dituzte arazoak, baita Euskal Herrian ageri den tirandura politikoa ere.

Aurrikusiriko garapen-estrategien helburu nagusia ekonomiaren hazkuntza sustengatu eta orekatua bultzatzea da, biztanleriaren bizi-kalitatea hobetuz. Aurrera egiteko asmoa dago azken urteotan hasitako egintzekin eta hemendik mendearen bukaerararte Euskal Herriko ekonomia Europar Batasuneko erregio nagusienen ongizate-mailetara hurbil dadin laguntzekoa.



# EUROPAR BATASUNAK EUSKAL HERRIARI EMANDAKO LAGUNTZAK (1989-1993)

Euskal Herriaren garapen-maila erlatiboak ez dio Egitura Fondoen 1 Helburuko europar erregioen artean sartzen uzten. Hala ere, bere lurralde eta biztanleria gehienak Europar Batasunaren zuzeneko laguntza hartu du Fondo horien gainerako helburuen bitartez, baita azken urteotan garatu diren ekimen komunitario diferenteen bidez ere.

Autonomi agintariekiko lankidetza estuan garaturiko egintza-multzo bat da eta ez da beti erraza gertatzen Europar Batasunak egitasmo bakoitzari eman dion laguntza zehaztasunez bereiztea. Ezagunak dira, ordea, Europar Batasunak guztira emandako laguntzen zifra orokorrak eta horiek azken urteotan egindako ahaleginaren berri ematen dute gutxi alde-alde.

***Euskal Herriko jarduera-tasa % 48,2koa da, eta Europar Batasuneko batezbestekoa % 55,1ekoa da. Langabeziak biztanleria aktibo osoaren % 22a hartzen du; aldiz, Europako herrialdeak batera harturik kopuru horrek ez du % 10,4a gainditzen.***

1989-1993 denboraldian, Egitura Fondoek Autonomi Elkarte honi 392,97 milioi ecu eman zizkioten 2 eta 5b helburuetan sarturiko egitarauen bitartez. Baliabide horien % 79,56 FEDERetik etorri ziren eta Autonomi Elkarteko biztanleriaren parterik handiena izan zen zuzeneko onuraduna. EGF eta FEOGA-Orientazioak kopuru horren % 18,86 eta % 1,58 eman zuten, hurrenez hurren.

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

| | 1986 | 1987 | 1988 | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| FEDER | — | — | — | 2,5 | 4,9 | 7,6 | 11,6 | 19,2 |
| EGF | 1,4 | 0,7 | 1,0 | 0,7 | 0,2 | 3,4 | 2,1 | 2,8 |
| FEOGA Orientazioa* | — | — | 1,1 | 3,2 | 1,0 | 3,0 | 1,2 | 4,7 |
| Egitura Fondoak | 1,4 | 0,7 | 2,1 | 6,4 | 6,1 | 14,0 | 14,9 | 26,7 |
| FEOGA Bermea** | — | — | — | — | — | — | — | 0,1 |
| Kohesio Fondoa*** | — | — | — | — | — | — | — | 0,3 |

* Eta nekazaritza eta arrantza-sektoreko beste baliabide batzuk.
** Autonomi Elkarteari luzaturiko fondo-zuzkidura FEOGAren kontura zuzenko ordainketag egiteko.
*** Zenbateko onartua.
ITURRIA: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Haziendako Ministerioa eta Administrazio Publikoetarako Ministerioa.

*Milaka milioi pezeta.*

Europar Batasunak, halaber, 3 eta 4 Helburuetan sarturiko egintzen bitartez, guztira 20. 567 milioi pezeta eman zituen 1993 eta 1994an, eta horiek autonomi agintariek buruturiko beste ekimen batzuk osatu zituzten, prestakuntza-kurtsoen eta langabeziari kontra egitera zuzenduriko egintza osagarrizko gaitan. Egintza horien onuradunen kopurua 241.000 pertsonakoa izan zen aipaturiko bi urte horietan.

Buruturiko egintza batzuek erregioan industri jarduera urritzetik sortutako arazoei kontra egiteko aukera eman dute. Zehatz esateko, lehentasuneko lau eremutan buruturiko ekitaldiak dira: ekoizpen-jarduerak sortu eta garatzea, ingurugiroa babestu eta hobetzea, Ikerketa eta Garapen teknologikoko ekimenei laguntzea eta komunikazio-sareak hobetzea.

***Nekazaritza euskal BPGaren % 2,7 besterik ez da. Zerbitzuak, aldiz, BPGaren % 57,4 dira eta langileen % 55,1i ematen diote enplegua.***

Hirigune hondatuak berreskuratzea, kutsaduraren aurkako borroka, Zentro Teknologiko eta Ikerketakoei laguntzea, enpresei laguntzeko mekanismoak, eta orohar, garraio-eta komunikazio-oinegiturak Europar Batasunak Eusko Jaurlaritzarekin izan dituen lankidetza-egintzen adibide dira. Gainera, ikatza eta altzairua, energia, ontzigintza edo ikerketa eta garapen teknologikoko egitarau berezi batzuek laguntza komunitarioa jaso dute azken urte hauetan.

Zehatz esateko, Europar Batasunak 2.000 milioi pezetako mailegu bat eman zuen Zamudioko Elkartegi Teknologikoa eraikitzeko finantzakidetzaren lehen aldirako. Halaber, RESIDER eta RENAVAL egitarauen bitartez, siderurgi eta ontzigintza- sektoreen birmoldaketa errazten lagundu zuen. Era berean, azken urteotan Europar Batasunak

Bilboko metroa, portuaren modernizazioa, gas naturalaren banaketa, Donostiako uraren garraioa eta tratamendua hobetzea edo Bernedon enpresa-gune bat eraikitzea bezalako beste egitasmo batzuk burutzen lagundu du.

Energi gaitan, ALTANER eta THERMIE egitarauek ekimen desberdinak bideratzen lagundu dute, eta horien artean aipatzekoak dira Pan-Terre enpresak isolamendurako paneletan, International Electronics-ek energia motoretan aurrezten eta Celulosa de Levante-k energia aurreztu eta kutsadura murrizten buruturikoak.

Nekazaritza-gaitan, azken hiru urteotan, Europar Batasunak 10 milioi ecu eman ditu erregarioa, kultiboak desberdindu, nekazaritza-emaitzak merkaturatzeko baldintzak hobetzea finantzatzeko eta gune malkar edo menditsuetako 4.000 bat nekazariri emandako laguntzatan. Valderreyko parke naturalaren babespen eta sustapenak ere laguntza jaso du Europar Batasunetik.

Azkenik, ikerketa eta hezkuntza-eremuetan egintza puntualak burutu dira, nahiz eta aparteko garrantzia duten elkartrukeetara eta europar erregio eta bertako hiritarren arteko aurrerapenera irekiago dagoen gune bat taxutzeko. Horrela, adibidez, unibertsitate-elkartrukerako

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

*Abra. Bilbo. Bizkaia.*

Photographs removed due to copyright restrictions.

*Eusko Legebiltzarra. Gasteiz. Araba.*

egitarauak (ERASMUS, FORCE, PETRA), COMETT egitasmoak edo europar laguntzarekin buruturiko ikerketa-kontratuek Euskal Herriko zentroek Batasuneko beste erregioetako homologoekin dituzten harremanak hobetzeko aukera eman dute.

1987-1994 denboraldian Euskal Herriak guztira 26.538. 571 ecu jaso ditu Europar Batasunetik laguntza gisa buruturiko 197 ikerketa-kontratuetarako. Euskal Herriko Unibertsitateaz gainera, GAIKER Teknologi Zentroa, Energiaren Euskal Erakundea, Tekniker, S.A., Teknologi Ikerketarako Elkartea, «L. J. Torrontegi» Entseiu eta Industri Ikerketako Laboratorioak eta Euskal Herriko Metalurgi Ikerketarako Elkartearen bitartez egindakoak aipa daitezke.

***Europar Batasunak Euskal Herriari ematen dion laguntza goraka joan da azken urteotan. Egitura Fondoek 1989-1993ko denboraldiko garapen-egitarautan aurrekonturaturiko baliabideen parte oso garrantzitsu bat bideratu zuten erregiorantz.***

Halaber onuradun gertatu ziren ikerketarako laguntza horietan honako enpresa hauek: Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A., Iberdrola, S.A., Cementos Rezola, S.A., Mercedes-Benz España, S. A., Fundiciones del Estanda, S.A. General Electric Protection and Control Equipment, Vicinay Cadenas, S. A.,

Photographs removed due to copyright restrictions.

Duñaiturria y Estancona, S. A., Robotiker-Technological Transfer Centre, eta Ona Electro-Erosion.

COMETT-II egitarauaren barruan Euskal Herriak 3,28 milioi ecu jaso zituen 1990-1994 denboraldian buruturiko 23 egitasmoetarako. Laguntza horien parterik mardulena ikasleen higikortasunera zuzendu zen, izan ere funtsezko garrantzia duen zerbait baita europar erregio desberdinen artean harremanak errazteko eta, kasu konkretu horretan, Euskal Herrian azken urteotan ikerketa-jarduerek izan duten hazkuntza garrantzitsua oraindik gehiago bultzatzeko.



# EUSKAL HERRIKO GARAPEN-ESTRATEGIA BERRIAK (1994-1999)

Euskal Herriko garapen-estrategiak datozen urteotan tokiko, erregioko eta nazioko agintariek bideratu behar dituzten egintza desberdinak hartzen ditu kontuan, Egitura Fondoen eta Europar Batasunean dauden finantza-tresnen laguntzarekin. hautemandako arazo bereziei aurre egin beharra dago euskal ekonomia Europar Batasunean sartzen lagunduko duen baterako egintza bat bultzatuz hemendik mendearen bukaerara bitartean.

***Lehentasuneko garapen-ardatzen artean jarduera ekonomikoei laguntzeko oinegitura-gaiko egintzak daude, baita baliabide natural eta giza baliabideak birbaliotzekoak ere.***

Egitura Fondoen 2 Helburuan aurrikusiriko egintzen bitartez (industriaren beherakadak erasandako guneei eskaini behar zaien arretaren bitartez) Euskal Herriak 749,48 ecutako guztizko inbertsioa jasoko dut 1994-1996 urte bitartean, eta horietatik 179,19 Europar Batasunaren zuzeneko ekarpenak dira eta beste 168,5 milioi ecu nazio-mailako egitarauentzat egindako ekarpenak dira, horiek ere Euskal Herrian aplikatuko direnak. Gainerakoa beste iturri publiko eta pribatu ez-komunitarioek ekarriko dute. Aurrikusiriko baliabideek industriaren beherakadak erasandako erregioentzakoaren baitan Espainiari esleituriko guztizkoaren % 31,1 osatzen dute.

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

*Zamudioko Teknologi Elkartegia. Bizkaia.*

| | Biztanleria milakotan | % Erregio azalera | Guztizko inbertsioa | Egitura fondoak |
|---|---|---|---|---|
| 2 helburua* | 2.062 | 86,5 | 749,481 | 179,193 |
| 5b helburua** | 42 | 1,96 | 81,2 | 26,53 |
| Guztira | 2.104 | 88,46 | 830,681 | 205,723 |

* 2 helburua 1994-96.
** 5b helbura 1994-1999.
Fondoen guztikoa, erregioanitzei dagozkienak barne direla 374,2 milioi ecu-takoa da denboraldirako.
ITURRIA: EUROPAR BATZORDEA.
*Milioika ecu-tan.*

Zuzenean erregioari esleituriko ekarpena (179,2 milioi ecu) honako jarduera-ardatz hauen arabera banatuko da:

— 99, 56 milioi ecu erregioko enpleguari eta enpresen lehiakortasunari eusten laguntzeko;

— 26,1 milioi ecu ikerketa, teknologia eta berrikuntzaren esparruko egintzatarako;

— 21,4 milioi ecu ingurugiroa babesteko;

— 14,52 milioi ecu tokiko eta hiriguneetako garapenari laguntzeko erdiz erdi;

— 14,5 milioi ecu jarduera ekonomikoekin zerikusia duten garraioen garapenerako,

— eta 3,11 milioi ecu laguntza teknikoko beste neurri batzuetarako.

5b Helburuaren bitartezko Komunitateak egindako ekarpena ere (baserri-munduarentzako laguntza) garrantzi handikoa da. 81,2 milioi ecutan jotzen da 1994-1999 denboraldirako kopurua, eta horien % 26,5 Europar Batasunetik etorriko da. Aurrikusiriko inbertsio horietarako Europar Batasunaren laguntzaren banaketa honako lehentasun-ardatzen araberakoa da:

— 5,77 milioi ecu jarduera ekonomikoaren oinarrizko oinegituratarako;

— 9,3 milioi ecu ekonomia sustatu eta desberdintzeko;

— 4,8 milioi ecu baliabide naturalak eta ingurugiroa babesteko;

— 3, 7 milioi ecu baserri-habitata hobetzeko;

— eta 2, 95 milioi ecu giza baliabideak birbaliotzeko.

3

Photographs removed due to copyright restrictions.

*Donostiaren ikusmira panoramikoa. Gipuzkoa.*

Egintza-sorta horrek enplegugintza bultzatu, jarduera ekonomikoak desberdindu, baserri-habitata hobetu eta oreka ekologikoari lagunduko diote. Halaber, eragin onuragarria izango dute baserri-komunikazioetan, enpresagintzan, ikerketan eta garapen teknologikoan eta, ondorioz, biztanleriaren ongizate-mailan.

## 3.1. Egitarau operatiboa

Euskal Herriko egitarau operatiboak, Laguntza Marko Operatiboaren lehen bi urtetarako finkatuak (1994-1995) dagoeneko hasita dauden, edota hasteko zorian dauden ekimenetako batzuk seinalatzen ditu, Egitura Fondoen finantzaketarekin gune hautagarrietan finkaturiko Helburu bakoitzerako.

Adibidez, 2 Helburuaren guneak, hau da, industriaren beherakadak gehien erasandako udalerriek, Euskal Herriaren biztanleriaren % 98 hartzen dute, horren barruan Arabako 17 udalerri, Gipuzkoako 77 eta Bizkaiko 96 daudelarik.

Era osagarrian, baserri-ingurunea modernotzeko premia handiena duten 58 udalerrik (5b Helburua) hiru lurralde historikoen arlo

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

desberdinetan taldekaturik gelditzen dira, eta horrek Euskal Herriaren hedaduraren % 37 esan nahi du, nahiz eta biztanleriaren % 2 besterik ez izan.

Euskal Herrian burutuko diren ekimenak, FEDERen laguntzarekin (2 Helburua), 1994-1996 denboraldian, honela taldekatu ditu Autonomi Gobernuak:

*Laguntza Marko Komunitarioan jasotako ekimenetako batzuk dagoeneko hartu dute finantzazioa Europar Batasunaren aldetik. Gainera, Kohesio Fondo berriak espainiar erregioen garapenera bideraturiko baliabideak gehitzeko aukera emango du.*

1) «Enpresarentzako laguntza», honako kategoria hauetan sartutako egintzen bitartez: ETEEi zuzeneko laguntza inbertsio-gaitan; testuinguru lehiakorra eta nazioarte-mailako sustapena; enpresentzako zerbitzuen sustapen eta garapena; industri hirigintza; enpresaguneak, parke eta arlo teknologikoak; sustapena eta enpresarentzako laguntza teknologikoa; ingurugiroaren sustapen eta babesketa.

2) «Ingurugiroaren babesketa» hirigintza-maila, endekaturiko industriguneen birgaikuntza eta industri hondakinen kudeaketarekin.

